



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2018ko urriaren 23an, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu-ekitaldirako enplegu publikoaren hirugarren eskaintza onesten duena.

ERABAKIA

1. artikulua

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22tik 24ra bitarteko artikuluetan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan, Estatuko 2018. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 4/2017 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatzen dena betez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu Publikoaren Eskaintza onesten da 2018ko ekitaldirako, erabaki honetan ezartzen den eran.

2. artikulua

Enplegu publikoaren eskaintza honetan, aurrekontuko zuzkidura duten plaza hutsak sartzeko dira; erabaki honen eranskinean agertzen da haien kuantifikazioa, eskala, azpieskala, mota eta espezializatetaren sailkatua. Beraz, konprometitutako plazei gehi gehienez ere gainerako plazen ehuneko hamarrari dagozkien hautaketa-prozesuetarako deialdia egin beharko da. Plaza huts horiek ez daude beste ezein enplegu-eskaintzatan edo deialdi-prozesutan konprometitirik.

3. artikulua

1. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria eta arloan aplikatzekoa den gainerako araudia (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuena) betez, lanpostu hutsen erreserba bat egiten da %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonekin betetzeko, baldin eta pertsona horiek hautaketa-probak gainditzen badituzte eta, dagokion unean, aplikatu beharreko legeak ezarritakoaren arabera ziurtatzen badute desgaitasun-maila hori dutela eta desgaitasun hori bateragarria dela egin beharreko lan eta eginkizunekin. Era berean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikuluan ezarritakoa betez, honela egingo da plazen %7ren gutxieneko erreserba: desgaitasun intelektuala duten pertsonak betetzeko izango da eskainitako plazen %2 gutxienez; gainerako plazak, berriz, beste edozein desgaitasun mota dutenek betetzeko izango da. Plaza-erreserba horretan, 2018. urterako eskaintzen diren plaza guztien %7 gordeko da, eta dagokien deialdietan ezarriko da nola banatuko diren.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserburiko plazak sarrera arrunteko plaza-deialdietan sartu ahal izango dira, edo aparteko txanda batean.

3. Desgaitasuna duten pertsonak gainerako hautagai guztien baldintza berberetan onartuko dira Foru Aldundiak deitutako hautaketa-prozeduretan.

4. Desgaitasuna duten pertsonak eskatuz gero, denbora eta baliabideak egokitu dira hautaketa-probak egin ahal izateko, betiere horrekin proben edukia hutsaltzen ez bada edo eskatzen den maila murriztu edo gutxitzen ez bada.

5. Artikulu honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonentzat joko dira izaera hori edo %33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila organo eskudun batek aitortua dute-



nak, 1999ko abenduaren 23ko 1971/99 Errege Dekretuaren arabera (Imsero, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila edo baliokidea).

6. Aurreko puntuetan adierazitako kasuetan, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plaza eskatzen dituzten hautagaiek honako hau egiaztatu beharko dute, organo eskudunek emandako ziurtagirien bidez: batetik, desgaitasun hori badutela eta, bestetik, eskatutako plazetan egin beharreko lanak eta eginkizunak egiteko gaitasuna dutela.

4. artikulua

Giza Baliabideen Planetik eratorritako barne-sustapeneko deialdietan izan ezik (deialdi horiek beren araudia dutelako):

1. Plazen izaera irekia gorabehera, deialdi bakoitzean deitutako plaza hutsen artean egokituz jotako kopurua erreserbatu ahal izango da barne-sustapeneko sistemaren bidez betetzeko.
2. Barne-sustapenaren bidez sartzeko, probak gainditu behar dira. Kasu bakoitzeko eskala, azpieskala, mota eta espezialitatean sartzeko deialdian ezarriko dira proba horiek.
3. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazaren bat hutsik geratzen bada, txanda askeko plazei gehituko zaie.
4. Estatuaren 2018. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 19.bat.7. artikulua azken paragrafoan zehazten duenez, barne-sustapeneko sistemaren bidez hornitzeko erreserbatzen diren plazak, Giza Baliabideen Planetik eratorritakoak zein, aurreko ataletan adierazi denaren arabera, deialdi bakoitzean horretarako erreserbatzen direnak ez dira kontuan hartuko birjarpen-tasak ekarritako plazen gehieneko mugaren barruan.

5. artikulua

1. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen V. tituluan xedatzen dena eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezartzen dena betetzeko (aipaturiko 6/1989 Legearen 97.5 artikulua eta dekretu horren 27. artikulua lotuz), eta kontuan hartuta enplegu-eskaintza plazak deitzeko dela eta ez zuzenean lanpostuak deitzeko, egun lanpostuen hizkuntza-eskakizunak lanpostuen zerrendetan adierazita daudela eta Eusko Jauriaritzako organo eskudunek epe honetan dagoeneko onartu diren lanpostuei buruz emandako txostenekin bat datozela, enplegu publikoaren eskaintza honetan eskaintako plazen hizkuntza-eskakizunak eranskinean adierazita-koak izango dira.

2. Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazetan, hizkuntza eskakizuna nahitaez bete behar da plazara sartzeko, eta egiaztatena deialdiaren oinarrietan zehaztutako eran egingo da.

3. Eskaintako gainerako plazetan, euskararen ezagutza merezimendutzat joko da. Ehuneko hori ez da inola ere hautaketa-prozesuaren gainerako ariketetan guztira gehiezin lortu daitekeen puntuazioaren ehuneko bost baino txikiagoa izango, ezta ehuneko hogeitau baino handiagoa ere, honako eskala honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: %5etik %10era.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: %5etik %10era.
- 3. hizkuntza-eskakizuna: %11tik %20ra.
- 4. hizkuntza-eskakizuna: %11tik %20ra.

6. artikulua

1. Edonola ere, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.1.c) artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioak izendatu ahal



izango dira aldi baterako programak garatu ahal izateko, bai eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.1.d) artikuluan xedatutako gehiegizko zereginak edo zeregin-pilaketa betetzeko ere; baina kasu hauetan baino ezin izango dira bete plantillan hutsik dauden plazak bitarteko funtzionarioen bidez: karrerako funtzionarioen bidez plazak bete ez direnean edo aldi baterako absentzia dela-eta haien plazen eginkizunak betetzeko.

2. Bitarteko funtzionarioek honako kasu hauetan galduko dute berez beren kargua: dagokion deialdian gainditu duten hautagaiak karrerako funtzionario karguaz jabetzen direnean, ordeztzen duten funtzionarioa itzultzen denean eta, edozein kasutan, izendapena eragin duten premiazko arrazoiak edo beharrianak desagertzen direnean. Horrez gainera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.1.c) artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioak izendatzen direnean aldi baterako programak garatu ahal izateko eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.1.c) artikuluan xedatutako gehiegizko zeregin edo zeregin-pilaketetarako izendatzen direnean, programa eta izendapen horiek amaitzen direnean galduko dute kargua.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bibon, 2018ko urriaren 23an—Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Ibone Bengoetxea Otaolea



ERANSKINA / ANEXO

ADMINISTRATIO BEREZIKO ESKALA / ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL

ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA, MOTA: SUHILTZAILE ZERBITZUA
SUBESCALA DE SERVICIOS ESPECIALES, CLASE: EXTINCIÓN DE INCENDIOS

Plazaren kodea Código Plaza	Izena Denominación	Plaza kop. N.º plazas	Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico	Derrigorrezkoa Preceptivo	Derrigorrezkoa ez dena No preceptivo
1324331	Suhiltzaile Zerbitzuko sarjentua Sargento/a Servicio Extinción de Incendios	5 *	2	1	4

* Aurrez ikusitakoaren arabera, gutxienez 3 plaza gordeko dira barne-sustapenerako.
Se preve un mínimo de 3 plazas reservadas a promoción interna.